

ELABORAZIO EKOLOGIKOAK NNPEK BIDEZ ZIURTATZEKO ESKULIBURUA

Dokumentu honen xedea da elaboratzaile ekologikoaren ziurtapena lortzeko jarraitu beharreko prozesuaren eta oinarritzko betebeharren berri zuri ematea. Informazioa osatzeko, ekoizpen ekologikoaren araudia duzu eskura gure webgunean: www.cpaen.org.

Soil-soilik kontrolpean diren eta indarrean den ziurtapena duten nekazaritza eta elikadura ekoizpenek erabiltzen ahalko dituzte NNPEK kontseiluaren adostasun markak, bai eta “ekologikoa”, “biologikoa”, “organikoa” termino babestuek edo haien laburdurak ere.

NNPEK kontseiluak honako Eskuliburu hauek ditu eskura ziurtatu daitekeen jarduera bakoitzari buruzko informazioa emateko (gorriz, Eskuliburu hau bera da):

JARDUERAK	INFORMAZIO ESKULIBURUAK
Ekoizpena (ekoizpenak biltegitururik edo ez, barne dira ekoizpen propioak eraldatu gabeko lanak).	
“Azpijarduera”: Begetala.	Ekoizpen Begetala (MAN001)
“Azpijarduera”: Animaliak (erlezaintza barne).	Abeltzaintza Ekoizpena: Ugaztunak (MAN002); Abeltzaintza Ekoizpena: Erlezaintza (MAN003); Abeltzaintza Ekoizpena: Hegaztiak (MAN008)
“Azpijarduera”: Akuikola.	Abeltzaintza Ekoizpen Akuikola (MAN004);
Elaborazioa edo Prestaketa (biltegitururik edo ez, eraldakuntza da barne, bai eta bestelako lanak ere, hala nola hiltzea, ontziratzea, etiketatzea).	Elaborazioa (MAN005)
Inportazioa (Europar Batasuneko herrialdeetatik kanpo, biltegitururik edo ez).	Inportazioa (MAN007)
Banaketa/Merkaturatzea (produktua biltegitururik edo ez, barne dira produktuari lotutako transakzio ekonomikorik gabeko “merkaturatze” jarduerak)	Banaketa/Merkaturatzea (MAN006)

ALDERDI OROKORRAK

Ez da zilegi izatea aldi berean osagai ekologiko bat eta era ez-ekologikoan lortutako edo konbertsio fasean dagoen ustiatigitik datorren osagai berbera.

Ezin izanen dira erabili elikagaien eraldakuntzan eta biltegitratzean galdu diren propietateak berrosatzen dituzten substantziak edo teknikak, produktu horien eraldaketan izandako jarduketa zabarraren ondorioak zuzentzeko edota, gainerakoan, produktuaren egiazko izaerari buruzko nahasmendua eragin dezaketenak.

Ez da zilegi erabiltzea genetikoki eraldatutako organismoak (GEO), ezta GEOetatik edo haien bidez lortutako produktuak ere.

Arauetan edo ziurtapen baldintzetan aldaketak direnean, NNPEKek jarriko ditu zure eskura www.cpaen.org webaren bidez eta, halaber, araudiaren bertsio finkatua eguneratuko du. Honako esteka honetan ikusten ahalko dituzu aldaketak eta bertsio eguneratuak: <https://www.cpaen.org/es/normativa/reglamentos>.

Zure unitateetan gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiozu NNPEK erakundeari, eta haien deskribapena eguneratu, behar den bakoitzean (biltegitratze instalazioen altak edo bajak edo ekoizpenen eraldakuntzak, etab.).

Prebentzio eta ardura neurriak hartu beharko dituzu arauk ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta baimendu gabeko produktu edo substantziekin izan litezkeen kutsadura arriskuak murrizteko.

Ematen dizkizun zerbitzuengatik urteko tasetan ezarritako zenbatekoak ordaindu beharko dizkiozu NNPEK erakundeari.

Kontrolak egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio guztia jarri beharko duzu NNPEKen eskura eta, era berean, zure unitateko/jarduerako elementu guztietarako sarbidea eman beharko diezu auditoreei (instalazioak, etab.).

Sumatuz gero ekoiztutako edo jasotako produktu bat ez datorrela bat ekoizpen ekologikorako araudiarekin, kasuan kasuko produktua bereizi eta identifikatu beharko duzu, eta susmoa frogatu badaiteke, ez duzu produktu hori eko gisa (edo konbertsio gisa) merkaturatuko eta erabiliko, salbu susmoa baztertzen ahal baduzu; nolahi ere, susmoa baztertzerik ez baduzu, NNPEK kontseiluari jakinarazi beharko diozu.

PENTSUEN ELABORAZIOA, ETIKETATZEA ETA BERARIAZKO GARRAIOA

Pentsuak fabrikatzeko, nekazaritza-osagai ekologikoez gain, EB 2021/1165 Erregelamenduaren III. eranskinean jasotako produktuak eta substantziak erabiltzen ahalko dira.

Berariazko garbiketa- eta bereizketa-neurriak hartu beharko dituzu garraiobide mistoak erabiltzeko (pentsu ekologikoa eta ez-ekologikoa). Ekintza horiek erregistratzeaz gain, haien eraginkortasuna baloratu eta banaketetan emandako kopuruak adierazi beharko dira.

EKO pentsu eraldatuek ekoizpen ekologikoaren metodoa aipatzen ahalko dute etiketan, eta salmenta-izendapenean babestutako terminoak erabili, betiere nekazaritza-jatorriko osagai guztiak ekologikoak badira eta gutxienez produktuaren materia lehorraren % 95 EKO bada. Halaber, Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa eraman beharko dute, eta Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa (CPAEN-NNPEK) eramaten ahalko dute.

Aurreko paragrafoarekin bat etiketatu ezin diren pentsu konposatuen kasuan, “EB 2018/848 Erregelamenduarekin bat ekoizpen ekologikoan erabil daitezkeela” adierazten ahalko dute.

Pentsu konposatuak etiketatu behar direnean, etiketak honako ehunekoak jaso beharko ditu materia lehorreran:

- Guztira, zenbat lehengai ekologiko diren eta haien izenak.
- Guztira, zenbat lehengai dauden “konbertsioan” eta haien izenak.
- Guztira, zenbat lehengai ez-ekologiko diren edo zenbat dauden “konbertsioan”.
- Guztira, zenbat diren nekazaritza-jatorrikoak.

ARDOEN BERARIOAZKO ELABORAZIOA

Ardoa egiteko, EB 2021/1165 Erregelamenduaren V. Eranskinaren D zatian aipatutako produktuak eta substantziak erabiltzen ahalko dira.

Honatx enologia-praktika debekatuak:

- Hotzaren bidezko kontzentrazio partziala.
- Ardoen alkohol-edukia zuzentzea.
- Prozedura fisikoen bidez anhidrido sulfurosoa ezabatzea.
- Elektrodialisiaren bidezko tratamendua ardoaren egonkortze tartarikorako.
- Katioi-trukagailuen bidezko tratamendua ardoaren egonkortze tartarikorako.

Tratamendu termikoen kasuan, tenperaturak gehienez 75°C-koa izan beharko du.

Zentrifugazioaren eta iragazketaren kasuan, iragazketa inerteko laguntzailearekin edo gabe, poroen tamaina ezin izanen da izan 0,2 mikrometrotik beherakoa.

ALDI BEREKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA ETA EZ-EKOLOGIKOA

Zure jarduera mistoa izaten ahalko da (elaborazio ekologikoa eta ez-ekologikoa), bereizketa neurri egokiak hartzen badira. Ekoizpen ekologikoek ekoizpen ez-ekologikoetatik bereizirik egon beharko dute espazioan edo denboran.

ZIURTATU DAITEZKEEN ELIKAGAIAK, TERMINOEN ERABILERA ETA ETIKETATZEA

Elikagai eraldatuak ziurtatzeko 4 kategoria daude eta haietan ekoizpen-sistema ekologikoaren gaineko erreferentzia egin daiteke etiketan:

- EKO (% 95 baino gehiago “eko” nekazaritza).
- KONBERTSIOAN.
- EKO OSAGAIEKIN (% 95 baino gutxiago “eko” nekazaritza).
- EKO OSAGAIEKIN eta haren osagai nagusia ehiza edo arrantza bada.

EKO produktu ziurtatuak (% 95 baino gehiago “eko” nekazaritza):

EKO elikagai ziurtatuak nekazaritza-osagai ziurtatu ekologikoekin egin behar dira (gutxienez % 95era arte). Nekazaritza-osagai ekologikoak honako osagai hauekin batera joan daitezke:

- Ura
- Gatz ekologikoa eta ez-ekologikoa (oinarrizko osagai gisa sodio kloruroa edo potasio kloruroa dituen).
- EB 2021/1165 Erregelamenduaren V. Eranskinan aipatutako gehigarriak eta laguntzaileak.
- Urrin naturalak eta prestakin urringarri naturalak.
- Haragia eta arrautza-oskolak markatzeko koloratzaileak.
- Elikagaiak eraldatzeko erabili ohi diren mikroorganismoak eta entzimak (entzimak gehigarri gisa erabiltzen badira, baimendutako gehigarrien zerrendan badaude soilik). Legamiak eta legamia-aterakinak nekazaritza-osagaitzat hartzen dira.
- Mineralak (oligoelementuak barne), bitaminak, aminoazidoak eta mikromantenugaiak, baina soilik araudiaren arabera horrelakoak nahitaez erabili behar diren elikagaietan, edota osasunarekin/nutrizioarekin lotutako ezaugarri bereziak edo ondorioak izateko asmoz merkaturatzen

diren zenbait elikagaitan erabiltzea baimenduta bada, edota berariazko kontsumitzaile-taldeen premiei lotuta badaude (3 urte arteko haurrak).

- Osagai ez-ekologikoak, EB 2021/1165 Erregelamenduaren V. Eranskinean zerrendatuta badaude eta ez badaude aldi berean eko osagai berarekin edo “konbertsioan” dagoen osagaiarekin.
- “Konbertsioan” diren elikagaiak, aldi berean ez badaude eko edo ez-eko osagai berarekin.

EKO ziurtagiria duten elikagaiak ekoizpen ekologikoaren metodoa aipatzen ahalko dute beren etiketan, eta salmenta-izendapenean babestutako terminoak erabili. Halaber, Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa eraman beharko dute, eta Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa (CPAEN-NNPEK) eramaten ahalko dute.

Produktu ziurtatuak KONBERTSIOAN:

KONBERTSIOAN diren elikagai ziurtatuak “konbertsioan” aipamenarekin bakarrik etiketatzen ahalko dira, eta ezinbestekoa izanen da nekazaritza-jatorriko landare-osagai bakar batekin egina izatea. Ezin izanen dute eraman Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa; bai, ordea, Nafarroako Nekazaritza Ekologikorako Konbertsioaren logotipoa (CPAEN-NNPEK). Landare-jatorriko osagai bakarra honako osagai hauekin batera joaten ahalko da:

- Ura
- Gatz ekologikoa eta ez-ekologikoa (oinarrizko osagai gisa sodio kloruroa edo potasio kloruroa dituen).
- EB 2021/1165 Erregelamenduaren V. Eranskinean aipatutako gehigarriak eta laguntzaileak.
- Urrin naturalak eta prestakin urringarri naturalak.
- Elikagaiak eraldatzeko erabili ohi diren mikroorganismoak eta entzimak (entzimak gehigarri gisa erabiltzen badira, baimendutako gehigarrien zerrendan badaude soilik). Legamiak eta legamia-aterakinak nekazaritza-osagaitzat hartzen dira.
- Mineralak (oligoelementuak barne), bitaminak, aminoazidoak eta mikromantenugaiak, baina soilik araudiaren arabera horrelakoak nahitaez erabili behar diren elikagaietan, edota osasunarekin/nutrizioarekin lotutako ezaugarri bereziak edo ondorioak izateko asmoz merkaturatzen diren zenbait elikagaitan erabiltzea baimenduta bada, edota berariazko kontsumitzaile-taldeen premiei lotuta badaude (3 urte arteko haurrak).

- EKO OSAGAIKIN ziurtatutako produktuak (% 95 baino gutxiago eko nekazaritza):

EKO OSAGAI gisa ziurtatutako elikagaiak osagaien zerrendan bakarrik aipatzen ahalko dute ekoizpen ekologikoaren metodoa, hots, nekazaritza-jatorria duten osagai ekologikoetan, eta ezin izanen dute Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa eraman; bai, ordea, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa (CPAEN-NPEK). Produktu mota horien gainerako osagaiak honako hauek izaten ahalko dira:

- Ura
- Gatz ekologikoa eta ez-ekologikoa (oinarrizko osagai gisa sodio kloruroa edo potasio kloruroa dituen).
- EB 2021/1165 Erregelamenduaren V. Eranskinean aipatutako gehigarriak eta laguntzaileak.
- Urrin naturalak eta prestakin urringarri naturalak.
- Elikagaiak eraldatzeko erabili ohi diren mikroorganismoak eta entzimak (entzimak gehigarri gisa erabiltzen badira, baimendutako gehigarrien zerrendan badaude soilik). Legamiak eta legamia-aterakinak nekazaritza-osagaitzat hartzen dira.
- Mineralak (oligoelementuak barne), bitaminak, aminoazidoak eta mikromantenugaiak, baina soilik araudiaren arabera horrelakoak nahitaez erabili behar diren elikagaietan, edota osasunarekin/nutrizioarekin lotutako ezaugarri bereziak edo ondorioak izateko asmoz merkaturatzen diren zenbait elikagaitan erabiltzea baimenduta bada, edota berariazko kontsumitzaile-taldeen premiei lotuta badaude (3 urte arteko haurrak).

- Nekazaritza-jatorri ez-ekologikoko osagaiak, aldi berean ez badaude eko osagai berarekin.
- “Konbertsioan” diren elikagaiak, aldi berean ez badaude eko osagai berarekin.

Horrelako produktuek jakinarazi beharko dute zein den EKO osagaien ehunekoa, nekazaritza-jatorriko osagai guztien gainean.

EKO OSAGAIKIN ziurtatutako produktuak, eta haren osagai nagusia ehiza edo arrantza bada:

EKO OSAGAI gisa ziurtatutako elikagaiak, baldin eta osagai nagusia ehiza edo arrantza dutenek, ekoizpen ekologikoaren metodoari buruzko aipamenak eramaten ahalko dute osagaien zerrendan, hots, nekazaritza-jatorriko osagai ekologikoetan, eta salmenta-izendapenean argi eta garbi lotuta osagai nagusiaz bestelako eko osagai batekin (ehiza edo arrantza). Ezin izanen dute Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa eraman; bai, ordea, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren logotipoa (CPAEN-NNPEK) Produktu mota horien gainerako osagaiak honako hauek izaten ahalko dira:

- Ura
- Gatz ekologikoa eta ez-ekologikoa (oinarrizko osagai gisa sodio kloruroa edo potasio kloruroa dituen).
- EB 2021/1165 Erregelamenduaren V. Eranskinean aipatutako gehigarriak eta laguntzaileak.
- Urrin naturalak eta prestakin uringarri naturalak.
- Elikagaiak eraldatzeko erabili ohi diren mikroorganismoak eta entzimak (entzimak gehigarri gisa erabiltzen badira, baimendutako gehigarrien zerrendan badaude soilik). Legamiak eta legamia-aterakinak nekazaritza-osagaitzat hartzen dira.
- Mineralak (oligoelementuak barne), bitaminak, aminoazidoak eta mikromantengaiak, baina soilik araudiaren arabera horrelakoak nahitaez erabili behar diren elikagaietan, edota osasunarekin/nutrizioarekin lotutako ezaugarri bereziak edo ondorioak izateko asmoz merkaturatzen diren zenbait elikagaitan erabiltzea baimenduta badago, edota berariazko kontsumitzaile-taldeen premiei lotuta badaude (3 urte arteko haurrak).

Horrelako produktuek jakinarazi beharko dute zein den EKO osagaien ehunekoa, nekazaritza-jatorriko osagai guztien gainean.

Produktu kategoria guztien etiketan, osagaien zerrendan identifikatu beharko dira ekologikoak direnak edo “konbertsioan” daudenak.

Produktu kategoria guztien etiketan, lehengaien jatorria adierazi beharko da (laborantza lekua edo abereak hazteko lekua), honako aipamen hauek erabiliz:

- “EBko Nekazaritza”: gutxienez nekazaritza-osagaien % 95en jatorria EB bada.
- “EBz kanpoko Nekazaritza”: gutxienez nekazaritza-osagaien % 95en jatorria EB ez bada.
- “EBko Nekazaritza /ez EBkoa”: nekazaritza-osagaien jatorria EB eta EBtik kanpo bada.

«EB» edo «ez EB» aipamenen ordez herrialde baten izena edo herrialde eta eskualde baten izena jartzen ahalko dira, edo izen horrekin osatu, produktua osatzen duten nekazaritza lehengai guztiak kasuan kasuko herrialdean eta, hala badagokio, eskualde horretan lortu badira.

Elikagai ziurtatuen etiketa berriak berrikusteko eskatzen ahalko diozu CPAEN-NNPEKi, etiketan araudia betetzen dela bermatzeko. Berrikuspen hori eskatzeko, etiketa proposamena bidali beharko diozu NNPEKi, bai eta horretarako dagoen galdetegia ere.

GARBIKETA

Behar diren garbiketa neurriak hartu beharko dituzu, bai eta haien eraginkortasuna ebaluatu ere, ekoizpen ekologikoak eta ez-ekologikoak ez nahasteko eta ez kutsatzeko.

EKOIZPENEN MUGIMENDUAK ETA DERRIGORREZKO ERREGISTROAK

Beste unitate ekologiko batzuetara bidaltzen dituzun produktu guztiak behar bezala identifikatu beharko dira, arazuko baldintzen arabera. Horretarako, agiri osagarriak aurkeztu beharko dira, eta horien kopia bat gorde eta beste bat eman beharko diozu hartzaileri. Albaranak edo fakturak agiri osagarritzat jotzen ahalko dira, derrigorrezkoa den informazioa jasotzen badute (NNPEK identifikazioa produktuaren ziurtapen-emaile gisa, “eko” produktuaren edo konbertsio bidean den produktuaren identifikazioa, produktuaren igorlearen eta hartzailerearen identifikazioa, eta produktuaren trazabilitatea bermatzeko behar den informazio guztia).

Derrigorrezkoak diren erregistroak egin eta behar diren frogagiriak mantendu beharko dituzu araua betetzen dela bermatzeko. NNPEKek erregistro-ereduak jarriko ditu zure eskura, halakorik izan ezean erabil ditzazun, bai eta elaboratutako kantitateen erregistroak, garbiketa lanen erregistroak eta erreklamazio orriak ere. Zure erregistroek produktuaren trazabilitatea segurtatu eta sarreren eta irteeren balantzearen kalkulua ahalbidetu beharko dute. Erregistroak eguneraturik eta beterik izan beharko dituzu, haietan beharrezkoa den informazioarekin.

ZIURTAPENAREN PROZESUA eta ZIURTAPEN BETEBEHARRAK

Honatz ziurtapenaren prozesua:

1. Inskribatze-eskabidearen formulazioa aurkeztu behar da NNPEK kontseiluan, behar bezala betea eta sinatua, erantsi beharreko agiriekin batera. Galdetegia gure webgunean dago eskura: www.cpaen.org.
2. Ziurtapen Akordioaren sinadura. Aurrekontua prestatu eta helaraziko zaizu, eskaera egin denean indarrean diren tasen arabera. Ziurtapen eskabidea ez da betetzat eta onartutzat joko, Ziurtapen Akordioa sinatua aurkezten ez bada.
3. NNPEKek hasierako auditoretza egingen du zure eskabidea ebaluatzeko. Hasierako auditoretza operadorea jarduera ekologikoan ari den une batean egin beharko da. Dena den, salbuespenez, jarduera izan aurretik ziurtapena lortu beharra justifikatzen bada, hasierako auditoria jarduerarik gabe egiten ahalko da. Kasu horretan, ziurtapena 6 hilabeteko baliozkotasun-datarekin soilik emanen da, baldin eta 6 hilabete horietan jarduera ebaluatzeko moduko kontrol bat egin badaiteke (operadoreak NNPEKi abisatu beharko dio auditoretza jardueran ari denean egiteko). 6 hilabeteak igarotzen badira jardueraren kontrola egin gabe, NNPEKek baja emanen dio operadoreari.
4. Ebaluazioa aldekoa ez bada, zuzenketa-ekintzak hartu eta ezartzen ahalko dituzu zehazten den epean.
5. NNPEK kontseiluak zure eskabidearen aldeko edo kontrako ebazpena jakinaraziko dizu, behin Ziurtapen Batzordeak zure espedientea aztertu ondoren. Erabakia hartzeko epea gehienez 6 hilabetekoa izanen da, eskabidea betetzen duzunetik aurrera.
 - Kontrako ebazpena ematen bada, 6 hilabeteko epea izanen duzu behar diren zuzenketa egiteko, Batzordeak zure eskabidea berriz ere baloratu dezan. Epe horretan zuzenketa egiten ez baduzu, ulertuko da ez diozula prozesuari segidarik eman nahi, eta espedientea itxiko da.
 - Aldeko ebazpena ematen bada, NNPEK kontseiluak ziurtagiria bidaliko dizu. Ziurtagiriak 24 hilabeteko indarraldia izanen du, aipatzen diren irismeneterako betiere.

Behin operadore ekologiko gisa inskribaturik, zure ziurtapenaren irismenaren zabalpena eskatzen ahalko duzu, horretarako NNPEKek bere webgunean eskura jarriko dizkizun galdetegiak erabiliz (www.cpaen.org). Irismen berria ziurtatzeko prozesua hasierako ziurtapenerako berbera izanen da.

Zure ziurtapen eskariek kontrako erabakia jasotzen badute, apelazio idatzia egiten ahalko duzu Alderdien Batzordean, 15 eguneko epean jakinarazpena jasotzen duzunetik aitzina. NNPEKek, zure apelazioa jaso izana adierazteaz gain, haren emaitzaren jakinarazpen idatzia egingen dizu. Hala ere, apelazioan bestelako dokumentazio teknikorik aurkezten baduzu, Ziurtapen Batzordeak berak ebartziko du, lehen erabakia hartzean eskura izan ez zuen dokumentazio berria delako. Ziurtapen Batzordeak apelazioa ebazten badu dokumentazio berria duelako, eta kontrako ebazpena bada, jakinaraziko zaizu oraindik ere baduzula Alderdien Batzordean apelazioa egiteko aukera.

NNPEKek, halaber, jakinarazten dizu kezak edo erreklamazioak egiten ahalko dituzula emandako zerbitzuagatik edota kontrol eta ziurtatze jarduerarekin zerikusia duten beste arrazoi batzuegatik. NNPEKek huraxe jaso izana adieraziko dizu eta hura bere prozedurekin bat kudeatzeko konpromisoa hartuko du, ekintza egokiak eginez eta dokumentatuz; emanen zaizun erantzun idatzian jakinaraziko zaizu zer ekintza egin litezkeen kasu bakoitzean.

Behin ziurtapena emanik, NNPEKek kontrol auditoretzak egingen ditu, arauk ezarritako maiztasun minimoarekin, eta arriskuen ebaluazioa zehaztuko du, ziurtapen akordioa mantentzen den bitartean eta Kontseiluan baja hartzen ez duzun bitartean. Kontrol bisualaz eta dokumentalaz gain, NNPEKek laginak hartzen ahalko ditu zure ustiatzean. Analisisiek araua urratu ahal izan dela adierazten badute, NNPEKek bigarren analisi bat (adituaren txostena) jasotzeko duzun eskubideaz informatu eta jakinaraziko dizu eta, baieztatzen bada, dagozkion ikerketa egingen du.

NNPEKek jakinarazten dizu laginen analisiak laborategiei azpikontratatzeko dizkiela. Hortaz, lagina hartzen bada, kontrol-auditoretzan bertan kontra egiten ahalko diozu lagin hori laborategi jakin batek edo batzuek aztertzeari, eta auditoreari zure jarrera justifikatu beharko diozu.

Kontrolen emaitzen arabera, NNPEKek urtero berrituko du zure ziurtapena, edo ziurtapena kendu edo bertan behera utziko du, dela orokorrean, dela ekoizpen sorta edo elementu zehatzetan.

Zuzenketa/konponketa ekintzak egin beharko dituzu zure jarduera ziurtatuan atzematen diren urraketak moldatzeko, kasu bakoitzerako ezartzen diren epeen barnean. Urraketa horiek moldatzen ez badira, NNPEKek jakinaraziko dizu zer ekintza egin eta hilabeteko epea izanen duzu moldatu ahal izateko. Urraketen arabera, hona hemen zer neurri har daitezkeen:

- Operadoreak zuzenketa-plan bat aurkeztea.
- Ziurtapena kentzea ekoizpen sorta bati edota unitateko elementuei (kalifikazioa kentzea lursailei edo animaliei), edo erreferentzia ziurtatuei.
- Aurreko neurri batzuk edo antzeko batzuk batera.
- Ziurtagiria bertan behera uztea (ekoizpen metodo ekologikoari dagozkion terminoen erabilera debekatzea epealdi jakin baterako).
- Ziurtagiria kentzea (operadorearen baja).

Neurriak ezarriko dira, urratu den betebeharraren garrantziaren arabera, eta jarduera irregularren eitearekin eta inguruabar zehatzekin. Haien berri ematean, NNPEKek jakinaraziko dizu apelazioa egiteko eskubidea duzula.

Ziurtagiria bertan behera uzten bada, neurri hori jakinarazten denetik 6 hilabete baino gehiago igarotzen badira hura eragin duten arrazoiei konponbiderik eman gabe, operadoreari baja ematen ahalko zaio. Operadoreari baja ematea erabakitzen bada, ezin izanen da berriro operadore gisa alta eman 12 hilabeteko epean.

NNPEK kontseiluarekin sinatzen duzun ziurtapen-akordioak bi alderdien eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak jasoko ditu. Hala eskatuz gero, NNPEKek zure eskubideak, betebeharrak eta konpromisoak jarriko ditu zure eskura, bai eta NNPEKen konpromisoak eta erantzukizunak ere.

Indarrean diren tasen, kontsulten edo argibideen berri izateko, jarri gurekin harremanetan 948-178332 telefonoan.

Kontrol eta Ziurtatze Saila
CPAEN-NNPEK